

09/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

**2017KO ABENDUAREN 20AN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA**

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko abenduaren 20an goizeko hamaikak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ez Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakartzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Iñaki Merino Castro, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziek ez dute ezin etorria adierazi.

1.- “ALLEGI PASO NIBELA KENTZEKO PROPOSAMENAREKIN ADOSTASUNA (ADIF)” 2007KO ABENDUAREN 20KO UDALBATZARRAREN EZ OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIA BERTAN BEHERA UZTEA ETA ERABAKI BERRIA ONESTEA.

2007ko abenduaren 20ko Udalbatzarraren ez ohiko bilkuran ondorengo erabakia hartu zen:

“3.- ALLEGI “PASO NIBELA” KENTZEKO PROPOSAMENAREKIN ADOSTASUNA (ADIF).

Lehena.- 2007ko urriaren 31ko alkatetza ebazpena, ADIF enpresak luzatutako proposamena ontzat ematen duena, berrestea:

“DEKRETUA

Anoetan, 2007ko urriaren 31ean.

Ikusirik ADIF enpresak burutu duen ikerketa Anoetako udalerritik igarotzen den PK 601/185 trenbide pasagunea kentzeko aukerari buruz.

Kontuan hartuz 2007ko urriaren 18an egindako Hirigintza eta Batzorde Informatiboak luzaturiko diktamena, ADIF-en proposamena ontzat emanez eta

hurrengo eremuak argitzea eskatuz:

- *Terreno jabe bakoitzari zenbateko lur azalera hartuko zaion aztertzea.*
- *Posible izanez gero, terreno bertan errepeidea markatzea.*

Ikusirik lurjabe batek eskatu duela aktan idatziz jasota azaldu dadila, azterketa eremua Anoetako Planeamenduko Arau Subsidiarioen arabera nekazaritza intentsiborako eremua dela.

Kontuan hartuz azterketa hori egiteak ez duela Udalarentzat inolako gasturik.

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz

HONAKOA EBATZI DUT:

Lehena: Hirigintza eta Obra Batzordeko proposamena ontzat ematea eta ADIF enpresari eskatzea hurrengo eremuak argitzea:

- *Terreno jabe bakoitzari zenbateko lur azalera hartuko zaion aztertzea.*
- *Posible izanez gero, terreno bertan errepeidea markatzea.*

Bigarrena: Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunak; eta neuk, idazkariak, fede eman”.

Bigarren.- ADIF enpresari hurrengo eremuak aztertu eta argitu ditzala eskatzea:

- *Zubiaren ikerketa egitea. Zubiaren orientazioa ahal bada karretera aldera pegatzea.*
- *Afekzioak ahalik eta txikienak izan beharko dute, lurjabeei ahalik ea metro gutxien kenduz.*
- *Ahal bada, terrenoak galduko dituztenei lkalteordaina edo beste eremu batena sailak edukitzeko aukera ematea.*
- *Proiekttoa idazten doan bitartean, ADIFek harreman zuzena eta jarraia mantendu beharko du Anoetako Udalarekin, bere jarraipenaren berri emanez.*

Ikusita 2017ko irailaren 20an Anoetako Udaleko Hirigintza Batzordeak emandako irizpena.

Horiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, aho batez:

Lehena.- 2007ko abenduaren 20ko Udalbatzarraren ez ohiko bilkuraren gai zerrendako hirugarren puntuan onartutako erabakia bertan behera uztea.

Bigarrena.- Trenbidearen azpiko tunelaren irtenbide proposamena onartzea. Irtenbide honek indarrean dauden arau guztiak bete behar ditu, zutikako galibo askea, maldaren portzentajea eta irisgarritasuna besteak beste.

Hirugarrena.- ADIF baltzuari onartutako erabakiak jakinaraztea.

2.- ANOETAKO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUKAZIO TALDEA S.M. 2018-2021. URTE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

I.- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleginean, Anoetako Udalak eta TKT-k bat egiten dute euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premi eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura, herritarrak euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarea sustatzea da hitzarmen honen xede eta funtsa.

II.- TKT-k da Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.eus guneak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediarren jabe eta ekoizpen arduraduna.

III.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen da, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, anoetarrak.

IV.- TKT-k eratutako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea da, eta honela, euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaio.

V.- Beharrezkoa da TKT-k aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzak jardunean sakontzea, aintzat harturik Eusko Lege Biltzarraren “2/2016 legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa” -k Udalari ematen dizkion eskumenak eta TKT-k 2018-2021erako aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.

VI.- Hitzarmen honek bat egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak “Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140 zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak “Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan” (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri da.

VI.- TKT-k, gizartea zerbitzatzeko du helburu, ez du irabazi helbururik eta, sortuko

balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko da osoki.

Bozketa eginda, Udalbatzarrak aho batez onartu du hitzarmena, ondoren aipatzen den eran:

Lehena.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio lanak bideratzeari buruzkoaren testua eta I. Eranskina onestea.

Bigarrena.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio lanak bideratzeari buruzkoaren lankidetzaren hitzarmen berriaren sinadurarako ahalmena ematea Anoetako Udaleko Alkate-Lehendakariari.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.ri ematea.

Laugarrena.- Erabaki honi, eta bere edukia erantsi onartu den lankidetzaren hitzarmenaren testua eta I Eranskin moduan.

3.- “ORDENANTZA FISKALAK” 2016KO AZAROAREN 2KO UDALBATZARRAREN EZ OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIA ZATI BATEAN BERTAN BEHERA UZTEA.

2016ko azaroaren 2ko Udalbatzarraren ez ohiko bilkuraren gai zerrendako “Ordenantza Fiskalak” izenburua duen puntuan ondorengo onartu zen besteak beste:

Lehena.- 2017 urterako, Anoetako Udal Ordenantza Fiskaletan, behin behineko izaeraz, ondorengo aldaketak onestea proposatzen da:

.../...

B. ESPALOIEN GAINETIK ETXALDETARA IRISTEKO IBILGAILUEN SARRERA ETA BERAUEN APARKAMENDU ERRESERBA.

.../...

d) *Garaje indibidualetan 5 auto baino gutxiago sartzen direnean:*

1* *Auto bakoitzeko eta urteko..... 21,02 Euro"*

Haserako onarpenaren iragarkia 2016ko azaroaren 7ko 210 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta behin betiko onarpenaren iragarkia berriz 2016ko abenduaren 27ko 244 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Udal aparejadoreak ondorengo txostena egin du 2017ko abenduaren 15ean:

“2016. urtean Udaleko Ordenantza fiskalak onartzeko epea bukatu aurretik, udal aparejadoreak proposamen bat egin zion Udalari, aparkalekuen erreserbez gain (badoak) autoak espaloia gurutzatzeagatik tasa bat aplikatzeko, lokal bakoitzean sartzen diren auto kopuruaren arabera. Tasa hau beste herri batzuetan horrela aplikatzen da eta ba du bere zentzua.

Hau izan zen nire proposamena eta modu horretan onartu eta indarrean jarri zen ordenantza:

Kontuan izanda Badoen ordenantzak 3 auto baina gehiagorentzat ematen direla, horren arabera tasa minimoa $3 \times 21,20 = 63,60 \text{ €}$ zen eta hau aplikatzen hasi orduko, kexak etortzen hasi ziren udaletxean.

Obra eta Hirigintza batzordean berehala konturatu ziren onartutako ordenantza hori ez zutela behar bezala aztertu eta 2017an berriro ordenantza fiskalak aldatzeko

aukera izan zuenean, bertan behera utzi zuen.

Tasa hau aparkalekuen erreserba (badoa) dutenei aplikatu zitzaion, hauek direlako kontrolpean daudenak eta ez badoa ez dutenak. Egoera bitxiak ematen ziren kasu konkretu batzuetan, lokal batek 63,60 € ordaindu behar izatea, eta ondoko lokalak (badorik gabekoa) ez ordaintzea gauza bera eginda.

Arrazoi horregatik, batzordeak proposatu zuen ordenantza horregatik udalak kobratutako kopuruak bakoitzari bueltatzea eta horrela onartu zuen Obra eta Hirigintza batzordeak.”

Horiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, aho batez:

Lehena.- 2016ko azaroaren 2ko Udalbatzarraren ez ohiko bilkuraren gai zerrendako “Ordenantza Fiskalak” izenburua duen puntuan onartutako ondorengo erabakiaren zatia bertan behera uztea:

“Lehena.- 2017 urterako, Anoetako Udal Ordenantza Fiskaletan, behin behineko izaeraz, ondorengo aldaketak onestea proposatzen da:

.../...

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Ondorengo atala aldatzea:

ERANSKINA

TARIFAK

B. ESPALOIEN GAINETIK ETXALDETARA IRISTEKO IBILGAILUEN SARRERA ETA BERAUEN APARKAMENDU ERRESERBA.

.../...

e) *Garaje indibidualetan 5 auto baino gutxiago sartzen direnean:*

2* *Auto bakoitzeko eta urteko..... 21,02
Euro*

Bigarrena.- Bertan behera utzitako erabakiak eragindako zergadunei kobratu zaizkien kopuruak itzultzea onartzea.

4.- “ORDENANTZA FISKALAK” 2017KO URRIAREN 30EKO UDALBATZARRAREN OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAREN AKATSEN ZUZENKETA.

2017ko urriaren 30eko Udalbatzarraren ohiko bilkuraren gai zerrendako “Ordenantza Fiskalak” izenburua duen lehen erabakian ondorengo agertzen da:

“Lehena.- 2017 urterako, Anoetako Udal Ordenantza Fiskaletan, behin behineko izaeraz, ondorengo aldaketak onestea proposatzen da:

.../...”

2018 agertu behar da 2017 urterako beharrear, akatsa zuzendu ahal izateko, ondoren adierazten den moduan:

“Lehena.- 2018 urterako, Anoetako Udal Ordenantza Fiskaletan, behin behineko izaeraz, ondorengo aldaketak onestea proposatzen da:

.../...

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, goizeko hamaikak eta hamar direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.